



HEZKIDETZARI BURUZKO PRESTAKUNTZA SAIOA OARSOALDEKO LAU HERRIETAKO HAURRENTZAT ETA GURASOENTZAT

Eguna: apirilak 16

Ordua: 11:00 – 13:30

Lekua: Trintxerpeko Alkateordetzan

Saioaren dinamizatzaileak: Alaitz Mañes eta Jorge Ortega

Izena-emateko epea: apirilaren 4tik 11 bitartean

Azken urte hauetan gure jendartean berdintasunaren arloan aurrerakada gertatu den arren, hori ez da oraindik gauzatu gaur eguneko egoerarekin bat datozen jarrera eta praktika berrietan. Aldaketa benetakoa eta eraginkorra izan dadin, errealitate horri aurre egin behar zaio modu sistematiko eta antolatuan, familiaren eta heziketa formalaren esparruetan.

Genero ikuspegia eta hezkidetzaren lan-tresna eraginkorrak dira jendarte desberdintasunei heltzeko orduan, pertsonok jendarteratzen garen forma desberdin eta hierarkizatuak aztertzeko aukera ematen baitu. Emakumeentzat “berezkoa” eta gizonezkoentzat “berezkoa” dela esaten dena, ez dago horrenbeste sexu biologikoaren baitan, baizik eta jendarte zehatz baten barruan hegemonikoa den kulturaren eta haren interesen baitan, eta horregatik aldatu egiten da herrialde batetik bestera, eta garai batetik bestera. Maskulinitasun eta feminitasun tradizionalarekin lotutako baloreak ez dira naturalak, ez estatikoak. Horregatik aukera dugu, hezkuntza arlotik, emakumeak eta gizonak modu diferentziatu eta espezifikoa mugarrizten dituzten estereotipoen dekonstrukzio eta eraldaketari laguntzeko.

Saioak

Saioari hasiera eta bukaera elkarrekin emango diogu, haur eta heldu. Baina hainbat momentutan bi taldetan banatuko gara.

- **helduen taldean** sexismoa identifikatzen, estrategia ezberdinak eskuratzen, etxean zer eta nola egin dezakegun aztertzen, eta bakoitzari sortzen zaizkion zalantzak argitzen saiatuko gara. Tailer teoriko praktikoa izango da.

- **haurren tailerra**, berriz, erabat praktikoa izango da, ipuin, dinamika eta jolasen bitartez, beraiek ere hezkidetzaren bizitzeko eta gaiaren inguruan hausnartzeko.

Izen-ematea:

Apirilaren 4tik 11 bitartean eman daiteke izena euskara@oarsoaldea.eus helbidera mezua bidaliz edo 943 344 159 telefonora deituz.

Izena emateko orduan zehaztu beharrekoak:

Herria	Helduak Izen-abizenak	Haurrak Izena eta adina	Harremanetarako Telefonoa edo e-posta